



## 383 ZB.KO DEKRETUA.

Oiartzungo haranean, bi mila eta bederatziko maiatzaren hamaikan.

2009ko otsailaren 20an Udal honetako Alkate-Lehendakari jaunak 134 zk.ko Dekretu bidez Oiartzungo Udal Artxibo Fondoak antolatzeko zerbitzua CARDIAL ORGANIZACION DOCUMENTAL, S.L. enpresari behin-behingo esleitzea erabaki zuen.

Sektore Publikoaren Kontratazioa arautzen duen 2007ko urriaren 30eko 30/2007 Legearen 135.4 artikuluekin adostasunean, hamabost egun balioduneko epea eman zitzaion behin-betiko bermea ezar zezan eta Gizarte Segurantza eta zerga betebeharretan eguneratua dagoen ziurtagiriak aurkez zitzan.

Horiek aurkeztuta, Legearen 135.4. artikuluen 3.parrafoaren arabera, aurreko epea igaro eta gehienez bost egun baliodunetan behin-behineko esleipena behin-betiko deklaratu da.

Gaiaren inguruan Administrazio Orokorreko Teknikariak egindako txostenean jasotakoa aintzat hartuz, espediente bideratzean aplikagarri diren legezko tramite guztiak bete direla kontuan izanik, Toki Jaurbideak ematen dizkidan ahalmenen egikaritzan, ZERA ERABAKITZEN DUT:

Emandako epean CARDIAL, S.L. enpresak aurkeztu beharrekoak aurkeztu dituenek, Oiartzungo Artxibo Fondoak antolatzeko zerbitzuaren kontratua CARDIAL ORGANIZACION DOCUMENTAL, S.L. enpresari behin-betiko esleitzea proposatzen da 35.995 €ko prezioarekin (BEZ barne) eta 11 hilabeteko egikaritze epearekin.

Aitor Etxeberria Txurio Alkate-Lehendakari Jn.ak agintzen eta sinatzen du, eta neuk idazkari naizenez, ziurtatzen.

